

## Euskara sustatzeko laguntzak

Udalak eskola-orduz kanpoko jarduerak laguntzeko diru-laguntzak onartu ditu azaroan. Diru-laguntza hauek helburu bi dituzte: alde batetik, eskolan, eskola-orduetatik kanpo burutzen diren jardueretan euskara sustatzea, eta bestetik, hainbat ikastetxek urtero burutzen dituzten euskararen eguna edo euskararen astea bezalakoak laguntzea.

2012-2013an eskola-orduetatik kanpo egiten diren ekintzek 28.000 euro jaso dituzte eta euskararen eguna edo euskararen astea antolatzeak, 4.000. Lehenengo diru-laguntza ildo batez ere guraso-elkartek eskatzen eta jasotzen dute. Aurten, zehazki, 12 guraso-elkarteren artean antolatutako 119 proiektu lagunduko dira: sormen-tailerrak, mendi-irteerak, bazkalosteko jolasen dinamizatzailak eta beste hainbat ekintza.

Ikastetxeek ere antolatzen dituzte eskola-orduz kanpoko jarduerak, baina kopuruz xumeagoak eta puntualagoak dira. Ikastetxeen eskaerak batez ere Euskararen eguna edo Euskal kulturaren astea bezalakoak laguntzeko izaten dira. Aurten 11 ikastetxek eskatu dute laguntza hau.

Ez dira, ordea, euskara sustatzeko izaten diren laguntza bakarrak. Urtero Getxoko Udalak euskara eta euskal kultura sustatzeko 383.421 euro erabiltzen ditu.

Laguntza hauek 5 ildotan banatzen dira:

- Ikastetxe eta guraso-elkarteei ematen zaizkien euskarazko eskola-orduz kanpokoak laguntzeko.
- Euskalgintzan diharduten elkarteei ematen zaien dirua.
- Euskaltegiei eta umeen euskaltegiei ematen zaizkien laguntzak.
- San Juan suak, Olentzero, Korrika eta euskal kulturaren beste adierazpide batzuk antolatzeako kultur elkarte ezberdinei ematen zaizkienak.
- Herritarrei ematen zaizkien laguntzak, eta hauen barruan hainbat daude:
  - Erabilera bultzatzeko ildoak: aisialdiko begirale titulua ateratzen laguntzeko, komertzioetan errotulazioa euskaraz ere jartzeko eta gidabaimena ateratzeko laguntzak
  - Baliabide ekonomiko nahikorik ez dutenen euskalduntzea laguntzekoak.

Udalak urteak daramatza euskararen presentzia eta bere erabilera sustatzeko ekimenak laguntzen eta esan dezakegu urteetako esfortzu honek lortu duela laguntzak ezagunak egitea. Laguntza guztietatik ezagunenak euskara ikasten ari diren banakoei ematen zaizkienak dira, euskara-bekak bezala ezagunagoak. Koldo Iturbe zinegotziaren esanetan "Udalaren asmoa beti izan da euskara ikasten dutenak laguntzea, beti ere esku artean ditugun diru-baliabideak horretarako aukera ematen duten artean." 2014 urteari begira, lehen hiruhilekoan aurreikusten da diru-laguntzen oinarriak onartu, argitaratu eta eskaerak egiteko epea zabaltea.

Udalak ematen dituen diru-laguntzei buruzko informazioa nahi duenak 94 466 00 10 telefonora deitu edo [euskarazerbitzua@getxo.net](mailto:euskarazerbitzua@getxo.net) helbidera idatz dezake.

**DIRULAGUNTZAK**



## Argia Ereiten Euskara Sariak

Udalak, Euskara Zerbitzuaren bitartez, urteroko "Argia Ereiten Getxoko Euskara Saria" eman du. Aurtengoa, laugarrena, da eta Nahikari Ayoren eskutara joan da. Nahikari ikastetxeetan gazteen artean bertsolaritza irakasten ibiltzen da. Nahikari-engan euskararekiko konpromisoaz gain, ume eta gazteengan duen erakarpen indarra ere baloratu da. Gazteentzako euskararen erreferente bezala ikusten da eta bera saritzean ume eta gazteen esparru horretan egiten den lanari bultzada emateko modua dela irizten da.

Sariaren ikurra, Luix Artola artistak egin da egurrez, eta argia pasatzen uzten duen ezcurraren irudia erakusten du. Ezkurra eta Artea, Euskarak Getxon bizi duen egoeraren metafora bezala hartzen ditu artistak. Aspaldi Getxoko paisaia artadiz beteta egon zen, euskaraz aritzen zen jendez beteta egon zen bezala. Gaur egungo egoera bestelakoa da; arteak banakak dira euskaraz aritzen direnak bezala. Bai bata bai bestea errekuperatzen ari dira "argia" erein duten pertsoneri esker.

Sariaren bitartez, Udalak esker ona adierazi nahi die Euskara "ereiten" jardun duten pertsona, instituzio eta elkarteei.

Sariak badu bigarren alderdia ere. Gonbidapenekin arte-ekurrak bidali dira etxeetara. Gonbidapenak jasotzen dituztenei, haziok landatzea eskatzen zaie arte-landareak ateratzeko eta hemendik 2-3 urtera landaketa masibo baten bidez, artadia sortzeko Getxon. Artadi honi Euskararen Basoa deitu nahi zaio.



## BEHARSAREA web gunea BUBER sari ospetsuetarako hautagai

Interneteko web gunerik onenak saritzen dituzten BUBER SARI garrantzitsuetarako hautagai izendatu dute BEHARSAREA, Interneten euskararen erabilera sustatzen duten proiektu onenen kategorian.

Botoa eman eta lagundu zabaltzen! <http://buber.intereuskadi.org/web/index.php/>

BEHARSAREA zuk zeuk euskaraz lan egiteko edo euskaraz lan egingo duen norbait topatzeko doako internet ataria da. Lanak kategorietan sailkatuta daude, baina lan-mota guztiak bideratzeko balio du Beharsareak. Ildo horretan, lan partzialak zein lan profesionalak eskaini eta eskatu daitezke zerbitzu honen bidez.

Adibidez, umeak zaintzeko edo eskolako lanak egiten laguntzeko pertsona euskaldun bat nahi baduzu, zure iragarkia jar dezakezu edo dendari moduan lan egiteko prest bazaude ere, jar dezakezu zure eskaera.

Getxon 2009an sortutako baliabide hau zabaltze-prozesuan dago eta jada Bizkaiko 44 udalerritan erabiltzen dute, euren artean Bilbo, Erandio, Sopela, Leioa eta, esan bezala, Getxo. Eta azken honetan EGIZU elkarteak kudeatzen du atari hau.

Sartu [www.beharsarea.net](http://www.beharsarea.net) helbidean eta begiratu inguruotan dauden lan-eskaintzak. Telefonoz nahiago baduzu, deitu EGIZU elkartera, 605 739 916ra.



# Euskararen Nazioarteko Eguna

Datorren astean, abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzen da. Egun hori lehenengo aldiz 1949an antolatu zuen Eusko Ikaskuntza erakunde zientifiko eta kulturalak erbestean eta ordutik hona urtero atxikimendu eta ospakizun gehiago eta handiagoak izaten dituen jaia da.

Euskararen Nazioarteko Eguna mundu mailako ondare bizia zaintzen eta sustatzen lan egiten duen jendeak, euskararekiko erantzukizuna sentitzen duenak eta bera gozatzeko pribilegioa dutenak ospatzeko eguna da.



Euskararen Nazioarteko Egunaren inguruan, azaroaren 21etik abenduaren 4ra, Euskararen Jardunaldietan (aurten XV.ak), dugun pribilegio horretaz gozatzeko ari garela ospatzeko egunak ditugu.



## Pasa baloia euskarari

Fadurako kiroldegiko areto nagusian kirol entrenamenduak planifikatzeko software berri eta berritzailea aurkeztu berri da. Kimet planning izeneko software berri hau Kimet Sport enpresak garatu du eta Getxoko Udalak herriko klubentzako eskutia utziko du, umeekin burutzen diren futbol entrenamenduetan euskaraz egin ahal izateko asmoarekin.

Aspalditik ezagutzen da batez ere txikien mailatan zein inportantzia handia duten entrenatzaile eta monitoreek. Horretaz jabetuta, Euskara Zerbitzuak ahalegin handiak egin izan ditu kirol klubetako monitoreak euren lana euskaraz burutzen laguntzeko. Sentsibilizazio saioez gain, kirol ezberdinetan erabiltzen diren hiztegiak atera izan ditu eta urteak daramatza umeekin euskarazko entrenamenduak burutzen dituzten klubak diruz laguntzen.

Oraingoan pausu bat gehiago emango da eta umerik gehienek praktikatzeko duten kiroleko entrenatzaileek beraien entrenamenduak planifikatu eta egoki kudeatzeko tresna informatiko bat dute eskura.

Trena hau benjamin, alebin, infantil, kadete, jubencil, emakumeen futbolera eta futbol-eskoletarako dago bereziki pentsatua; erabat euskaraz da eta entrenamenduen prestakuntzan azken urteotako joeretan oinarrituta dago, entrenamendu dibertigarriak, hezitzaileak, umearen sormena, hurkoa laguntzea, talde-izaera eta antzeko balioak azpimarratzen dituztenak.

Kimet Planning software honen sortzailea esperientzia handikoa da futbolaren munduan, batez ere gazteenekin lanean. Gari Fullaondo, Athleticen formakuntzarako metodologia-arduradun izan zen zenbait urtez.

Aurkezpen ekitaldiak aldi bi izan zituen: lehenengoan, Jose Angel Iribarren laguntzaz egitasmoa prentsaurrekoan aurkeztu zen eta bigarrenengan, aurkezpen zabalagoa egin zen. Fadurako kiroldegian Getxo futbol taldeko entrenatzailea Endika Guarrotxena eta Athletic taldeko Eli Ibarra, Gorka Iraizoz eta Mikel San Jose egon ziren metodologia egoki bat izatearen inportantzia, entrenamenduen funtzio pedagogikoez eta lehenengo urteetan finkatzen diren ohiturez jarduteko, eta tartean entrenamenduetan euskara erabiltzearen oihuturaz aritu ziren.

Softwarearen aurkezpen ekitaldiaren aurretik, Iraizoz eta San Jose, Fadurako kiroldegian batu ziren eta 200 ume ingururi kamisetak eta argazkiak sinatzen aritu ziren. Tamalez, ekitaldi honetan sinatzen egon behar zuen Eli Ibarra entrenamendua zuela eta ezin izan zen sinatze ekitaldian egon.



## GetxOnegin V. Pintxo lehiaketa

GetxOnegin PINTXO LEHIAKETAren hurrengo edizioak berrikuntzak izango ditu. Nagusia, data-aldaketari dagokiona izango da. Getxoko ostalaritzako establezimenduetako arduradunek esandakoa aintzat hartuta, pintxo-lehiaketa ostalaritzat baxuagoa den garai batean antolatzea erabaki du Udalak. Hortaz, aurreko urteetan abenduan antolatzen bazen ere, GetxOnegin pintxo-lehiaketaren hurrengo edizioa 2014ko martxoan izango da.



## Euskararen Aholku Batzordea

Getxoko Euskara Plana 2013-2016 (ESEP) uztailean onartu zen. Honelako Plan baten egitekoa hizkuntza politikak jarraitu beharreko ildoak markatzea izaten da. Planaren helburu eta neurriak Getxoko gizarteari hobeto egokitzeko, plan bakoitzak bere Aholku Batzordea izaten du.

Getxoko Euskararen Aholku Batzordean 10 pertsona daude, gizarte esparru ezberdinen ezagutza egokia eta euskararekiko sentsibilitatea duten 10 pertsona. Hauen zeregina Udalean euskararen inguruan garatzen den

edozein ekintzari buruzko aholkua ematea izaten da, herrian dauden kezak plazaratzea eta, azken batean, planaren onartutakoa Getxoko gizartearen ahalik ondoen egokitzen laguntzea. Aholku Batzordearen operatibotasuna 2016ra artekoa izango da eta horretan denbora guzti horretan iritzia ematen du diru-laguntza ildoez eta bere aplikazioaren egokitasunaz, hizkuntza transmisioa hobeto gauzatzeko jarraitibideez, euskalduntze-alfabetatzearen etorkizunaz eta egunerokoak ekarri ahal duen edozein gaiz.

## Uribe Kostako bertsolariak (1900-1980) liburua

Pozgarria da Getxorentzat bertsolariak eskualdean XX. mendean izan duen ibilbidea kontatzen duen liburu hau aurkeztea, ez delako adierazpen artistiko baten nondik norakoen kronika bat bakarrik, baizik eta gizarte baten grina eta gogoia erakusten duen historia.

Liburu hau eskualde honek euskararekin aspaldi duen loturaren kontaketa da. Bertsoa hizkuntzaren ispilua da eta euskararen estatus soziala oso baxua zenean, edo jazarpen politikoak gogorren jotzen zuenean, eta hizkuntza bera debekatua zegoenean, gurean euskara espazio publikoetan bertsoen bidez agertzen zen.

Eta hori baino gehiago, bertsoen bidez, Erandio, Getxo, Leioa edo eskualdeko biztanle arrunten eta idazki ofizialetara edo akademikoetara ailegatzen ez ziren herritarren pentsaera, biziera, us-teak, iritziak kontatzen zaizkigu. Alde



horretatik gure aurrekoen kronika bat ere bada eta pentsaera edo biziera horiek behar bezain ezagunak ez diren pertsonen bidez agertzen zaizkigu, bertsolarien bidez.

Liburu honetan agertzen diren bertsolari hauek uholdeetan zubi izan dira eta ahozko tradizio zaharra, gaur egungo gazteei transmititzen jakin izan dute puri-purian dagoen berba-jolas honetan, Bizkaian erreferenteak izan arte.

Liburu hau Fredi Paiak egin du Labayru ikastegiaren eskutik eta Leioa, Erandio eta Getxoko udalek sustatu, lagundu eta argitaratu dute. Orain urte batzuetatik hona ari gara instituziook lan-ildo honetan eta lan hau ere euskararen aldaera bera partekatzen dugunok gure ondare ez-materiala jaso eta zabaltzeko egindako lanaren beste adibide bat da.

Liburua Getxoko liburutegi guztietan dago 20 eurotan.